



TRUMP

EUSKAL HERRIRA DATOR

G7REN GAILURRA

EUSKAL HERRIRA DATOR



**1 EMMANUEL JEAN-MICHEL
FRÉDÉRIC MACRON**
FRANTZIAKO ERREPUBLIKAKO PRESIDENTEA
2 SHINZŌ ABE
JAPONIAKO LEHEN MINISTROA
3 GIUSEPPE CONTE
ITALIAKO MINISTRO
KONTSEILUKO PRESIDENTEA

4 THERESA MARY MAY
ERRESUMA BATUKO LEHEN MINISTROA
5 ANGELA MERKEL
ALEMANIAKO KANTZILER FEDERALA
6 DONALD JOHN TRUMP
AEBETAKO PRESIDENTEA
7 JUSTIN TRUDEAU
CANADAKO LEHEN MINISTROA

Kresal usaina, eguzki sargoria, hondartza giroa, neska-mutilak arropa arinekin paseoa. Izan zitekeen Donostiako Zinemaldiko estampa bat, baina ez da. Donald Trump Estatu Batuetako presidentea Euskal Herrira dator. Ez dator Donostiara, Miarrizera dator. Abuztuaren 24tik 26ra. Eguzki sargoria, kresal usaina bai; baina neska-mutilik paseoa ez eta hondartza hutsak izango dira irudia.

Ez dator Trump bakarrik. G7 delako elkartearen Gailurra egingo dute berarekin Frantzia, Kanada, Alemania, Erresuma Batua, Japonia eta Italiako presidentek eta Europako Kontseiluko Lehendakariak eta Eurotaldeko presidentek. Ezberdintasun sozialez, krisi klimati-

koaz eta demokraziaren indartzeaz hitz egitera datoz. Haiek Frantzia hegoaldeko herri turistiko batera datoz Gailurra egitera. Euren atzetik, G7aren eta euren politika neoliberalen aurka protesta egitera datozen mundu osoko milaka aktibista etorriko dira. Guk diogu Euskal Herrira datozela. Bere autodeterminazio eskubidea ukatua duen herri zapaldura. Hemendik, mundu justu baten alde borrokan ari garela diogu: ezberdintasun sozialen aurka, krisi klimatikoaren aurka eta sakoneko demokraziaren alde. Horretan esperientzia sakona eta eredugarria dugula diogu, independentzia, sozialismoaren eta feminismoaren aldeko borroka, sakoneko demokraziaren aldeko borroka delako.

*“La mejor forma de cultivar
el internacionalismo es avanzar
en el proceso revolucionario social
allá donde haya condiciones para ello.”*

ARGALA

ERROMATAR HAUEK EROTUTA DAUDE!

G7AREN GAILURRA

**16.000 polizia,
gendarme eta soldadu.
10 fiskal, 30 epaile,
100 polizia judizialeko
ofizial, 70 abokatu**

Miarritze hiru egunez bunkerizatuko dute. Bi zonaldeetan banatuko dute: gorria eta urdina. Bietara ezingo da kredentzialik gabe sartu. Zonalde gorrian autoz ibiltzea eta aparkatzea debekatuko dute. Zonalde urdineran sartzeko poliziak guneak jarriko ditu.

Hondartza Handia guztiz itxiko dute. Nabigazioa edota surfa bezalako ur-ekintza guztiak debeka-

tuko dituzte. Armadak kostaldea patruilatuko du. Kanpotik ekarritako indar polizial eta militarrentzako 4000 logela, apartamentu eta eskola litera gorde dituzte.

G7aren finantzaketa Frantziar Estatuak ordainduko du. Ez dute kopuru zehatzik publiko egin baina azken urteotan ehunka milioi euro xahutu dituzte, luxuzko espazio eta segurtasun neurri zorrotzetan.

**Baionako fiskaltza
eta tribunala 15
egunez 24 orduz
aktibo**

**Hendaiako
Erretentzio
Administratiboko
Zentroa abuztuan
zehar itxiko dute,
atxilotutako pertsonak
galdekatzeko.**

**Miarritzeko
aireportua eta
geltokia itxiko dituzte.
Miarritze inguruan
manifestazioak ez dira
baimenduak izango.**



ZERTAZ HITZ EGINGO DUTE MIARRITZEKO GAILURREAN?

Areagotzen ari diren ezberdintasun sozialak, krisi klimatikoa, demokrazia indartzea izango ei dira gai nagusiak. Horrez gain, terrorismoaren aurkako borroka, alde anitzeko lankidetzaz, manipulazio informatiboa eta Afrikarekiko lankidetzaz izango dituzte hizketagai. Itxura ona ezta?

BAINA ZEIN DIRA G7K SUSTATZEN DITUEN POLITIKA NEOLIBERALEN ONDORIOAK?

G7aren politikak mundua kolapsora daramate.

Zein dira munduko ordena neoliberalaren ondorioak?

POBREZIAREN AREAGOTZEA

Aberastasuna gero eta esku gutxiagotan metatzen ari da. 2008ko krisiaz geroztik, joera hori indartzen ari da. Aberatsak aberatsago eta pobreak pobreak.

LARRIALDI EKOLOGIKOA AREAGOTZEA

Planetaren 1'5º berotzea saihesteko, CO2 emisioak %45 murriztu behar dira 2030erako. Ez dira ari neurri horiek betetzen. Munduko biztanleen 10etik 9k aire pozoitua arnasten du. Ura ere pozoitzen ari da; plastikoz betetako itsasoak dira lekuko.

EMAKUMEAREN BAZTERKETA

Munduan 2.700 milioi emakumek ez dituzte gizonezkoek dituzten eskubide berak. Lan

beragatik soldata ezberdinak eguneroko ogia dira mundu osoan. Estatu askotan emakumeek ez dute hezkuntza eskubiderik, ez eta jabeago eskubiderik ere eta beraz, ezin dute bizitza autonomorik garatu.

KULTUR UNIFORMIZAZIOA

NBEn 200 Estatu daude baina munduan 6.000 hizkuntzatik gora. Datozen ehun urteetan, joera ez bada aldatzen, ehunka hizkuntza eta kultura desagertuko dira.

MIGRAZIO FLUXUEN INDARTZEA

Pobreziaren eta gerraren ondorioz 68,5 milioi pertsonak atzerrira ihes egin behar izan dute, migrazio krisia eraginez. Migrazio klimatikoa ere hasi da eta indartu egingo da.



Zein dira ezkerrearen erronkak?

DEMOKRAZIAREN ETA HERRIEN AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEAREN DEFENTSA

PERTSONEN ONGIZATEA BERMATUKO DUEN ETA ABERASTASUNAREN BANAKETA BERMATUKO DUEN ESTATUAREN DEFENTSA

TRANSIZIO EKOLOGIKOA GAUZATZEKO NEURRIAK

TRANSIZIO FEMINISTARAKO NEURRIAK

KULTUR ANIZTASUNA BERMATZEKO NEURRIEN DEFENTSA

BAKEAN BIZITZEKO ESKUBIDEAREN DEFENTSA



SYSTEM ERROR

ZER EGIN?



BORROKA

Euskal Herrian egin dugu eta ari gara

Europar eta munduan erreferentzia diren borroka dituen herria gara, jendarte justua eraikitzeko.



LEMOIZKO ZENTRAL NUKLEARRA GELDITU GENUEN

Francok Euskal Herrian lau zentral nuklear eraiki nahi izan zituen: Lemoiz, Ispaster, Deba eta Tuteran. Herri mugimenduek hiru gelditu zituzten arren, Lemoi-zeoak aurrera egin zuen. EAJK esan zuen zentral nuklearrik gabe “azak jaten eta kandlekin” amaituko genuela. Kale mobilizazioekin batera etorri ziren Iberdurerori boikotak, argi-itzalketa masiboak, ETaren ekintzak... Zentrala eraiki zuten, bai, baina ez zen sekula martxan jarri.



MUNDUAN ERREFERENTZIA DEN KOOPERATIBISMOA

1956ean sortu zen Fagor etxetresna kooperatiba. Egun 100 enpresatik gorak osatzen du Mondragon sarea, munduko kooperatiba industrialik handiena. Azken urteetan kooperatibagintza belaunaldi berria sortu da, bokazio sozial eraldatzailearekin: Olatukoop eta REAS sareak, besteak beste. Kooperatibetan produkzio bitartekoak langile sozioenak dira eta bertan sortzen den aberastasuna (ekonomikoa, jakintza) komunitatean itzultzen da.



EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBERA (EHLG)

Ipar Euskal Herriak Frantziako Iraultzatik ez du errekonozimendu instituzionalik izan 2017an Euskal Elkargoa sortu zen arte. Instituzionalizazioa lortzeko borrokan, 2005ean EHLG sortu zen, laborantza iraunkorraren, laborariaren eta tokiko garapenaren alde egiteko. Parisen bere kontra egin zuen 2008an, Pauen dagoen Akitaniarako Chambre d'Agriculture nahikoa zela iritzita. Borroka luzearen ondoren, epaiketa irabazi eta egun legezko egitura da.



EUSKO; EUSKAL MONETA

Euskara Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaian erabiltzen den tokiko moneta da. Eusko elkartearen baitako enpresa eta elkarteekin erabili daiteke. Hala, batetik, tokiko salerosketa harremanak sustatzen dira, zor ekologikoa murriztuz. Bestetik, elkarteko kideak euskara sustatzera konprometitzen dira harremanetan, produktuen etiketetan... Egun 1.000.000 eusko baino gehiago daude zirkulazioan eta Europako tokiko moneta indartsuena da.



ARMAGABETZERAKO EUSKAL EREDUA

ETA erakundeak 2011n borroka armatua amaitzea erabaki zuen. Espainia eta Frantziaren blokeoa ikusita, 2016an, hainbat herritarrek armagabetzean laguntzeko konpromisoa azaldu zuten eta 2017ko apirilaren 8an ETAK bere arma guztiak Bake Artisauen esku utzi zituen. 20.000 lagun bildu ziren Baionan. Munduan ez dago gizarte zibilaren halako inplikazioa duen beste armagabetze esperientziarik. *Basque model for conflict resolution* eredu da nazioartean.



EUSKARA BATUA ETA GAU ESKOLAK

1960ko hamarkadan euskara hizkuntza minorizatua zen eta desagertzeko bidean zegoen mendetako zapalkuntzaren, frankismoaren eta jakobinismoaren debekuen ondorioz. Biziraun ahal izateko herri bulkada ezinbestekoa izan zen. Euskararen berpiztea ulertzeko, Euskaltzaindiak euskara batua sortzea mugarria izan zen. Euskal literatura berria, euskaltegiak, Korrika, Euskaraldia... Herri honek asko egin du, bai, baina bulkada berri baten garaia da.



IKASTOLEN MUGIMENDUA

Espainia eta Frantziako eskola publikoetan erdarak ziren nagusi. Gerra aurrean lehen ikastolak sortu ziren euskara ardatz zuen hezkuntza eskaintzeko. Francok, ordea, debekatu zituen. Hala ere, diktadurapean, lehen Ikastola klandestinoak sortu ziren, Elbira Zipitriak sustatuta. 1960tik aurrera ikastolen boom-a etorri zen. 1969an Seaska. Egun, euskara, pedagogia berritzailea eta izaera herritarra dira Ikastolen ezauzgarri nagusiak.



SOLDADUTZAREN AURKAKO BORROKA

XX. mendean soldadutza derrigorrezkoa zen espainiar zein frantziar estatuetako mutilentzat. 80ko hamarkadan antimilitarismoak indarra hartu zuen Euskal Herri osoan. Milaka euskal gaztek legeak desobeditu eta armadara joateari utzi zioten. Ehunka intsumiso kartzelan sartu zituzten 80-90eko hamarkadetan. Intsumisioak gizarte osoaren babesa lortu zuen. Mugimenduaren sendotasunak derrigorrezko soldadutza kentzea lortu zuen XXI. mende hasieran.



ERASO MATXISTEN AURKAKO SANFERMINETAKO PROTOKOLOA

Urteetan sanferminak desfaserako festa gisa saldu dira. 2015ean Aldaketaren gobernuak eta mugimendu feministak eraso matxisten kontrako protokoloa adostu zuten. 2016an "La Manada" bortxaketaren aurrean protokoloa arrakastaz aplikatu zen. Iruñeak festak berdintasunean bizi nahi dituela argi utzi zuen kalean. Gaur nafar jendartea ez dago edozer onartzeko prest. Instituzioen eta mugimenduen arteko elkarlanak urrats sakonak ematea ahalbidetu du.



GORA GASTEIZ, ARRAZAKERIAREN AURKAKO AUZOLANA

Gora Gasteiz ekimena arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako auzolan eredu garria izan da. Javier Maroto alkate ultraeskuindarrak Gasteizera migratutako pertsonen aurkako neurri gogorrak ezarri zituen. Sentsibilitate ezberdineko norbanako eta eragile ugari gai izan ziren erantzun bat emateko eta aniztasunaren alde antolatzeke. Gora Gasteizek sentsibilizazioa lantzen eta 2015eko hauteskundeetan Maroto alkatetzara iristea galarazi zuen.

BIDEGURUTZERA IRITSI GARA

“Gizateria bidegurutzera iritsi da. Bizi dugun zibilizazio krisiaren adierazpenak –arrisku ekologikoa, erreprodukzio sozialerako zailtasunak edota desberdintasunen areagotzea– elkarlotuta daude. Adierazpen horiek iradokitzen dute gatazka sistemikoa badatorrela gure zibilizazioaren eta gizateria gisa osatzen gaituenaren artean. Planetaren larrialdi egoeraren aurrean gaude, gehiengo sozialek baldintza duinetan bizirautea baitago jokoan.”

Yayo Herrero

DEMOKRAZIA PRIBATIZATZEN ARI DIRA

“Demokraziaren dimentsio ezberdinak pribatizatzen ari dira. Demokrazia publikotasunarekin lotzen dugu, eta orain prozesu batean gaude, zeinaren bitartez hasten den gutxi batzuen eskuetan uzten orain arte publikoa zena, hezkuntza, osasun arloa, garraio publikoa, ura, energia... elite finantzario batzuen eskuetan utzita.”

Jule Goikoetxea

UTOPIAK BEHAR DITUGU...

“Alternatiba askatzaileen gainean etengabe hausnartzea posiblearen mugak zabaltzeko prozesuaren parte da. Gaur urruneko aldaketa bideragarri baten ideia ez dena, behar bada proiektu politiko koherente bihurtu daiteke.”

Erik Olin Wright

...BAINA PRAKTIKEN BIDEZ EGINGO DUGU AUERRERA!

“Sistemaren alternatiba eraikitzeke, metateoriek eta adarbakar-ereduek ez digute balio, jabetza kolektiboak eta kudeaketaren demokratizazioari lotutako esperientzia zehatzek –ia arrakastarik izan ez dutenak barne– baizik.”

Raul Zelik



“There is no alternative” esan zuen Margaret Thatcher Erresuma Batuko lehen ministroak 80ko hamarkadan bere politika neoliberal atzerakoia inposatzeko. Pobreziaren areagotzea, prekaritatea, ezberdintasun sozialen areagotzea, segregazioa, gerrak, autoritarismoaren indartzea, baliabide naturalen agortzea, larrialdi klimatikoa, patriarkatua eta emakumeen zapalkuntza egiturazkoa, globalizazio kulturala eta hizkuntza zapalduen desagertzea... Sarri txiki sentitzen gara halako erronka handien aurrean. Zer egin? Beldurra eta ezina gailentzen dira askotan.

G7, estatu kapitalistak eta antzeko egiturak herritarron eskubideak murriztu, usurpatu eta merkatuen esku uzteko tresna bilakatu dira. Autoritarismoa gailentzen ari da, demokrazia (herritarron gobernu) gero eta gutxiago interesatzen zaielako. Normala da: boterea eta aberastasuna gero eta esku gutxiagotan metatzen ari direlako, hori delako proiektu neoliberalak.

Boterea esparru guztietan borrokatu behar da. Estatua nahi dugu boterea berreskuratzeko eta parean ditugun erronka kolosalei aurre egin ahal izateko. Merkatuen diktaduraren aitzin, demokrazia eta burujabetza. Independentzia behar dugu, hemen erabaki

ahal izateko gure politika feministak, ekonomikoak, ekologikoak, sozialak, linguistikoak, kulturalak.

Alternatibarik ez dagoela errepikatzen dute baina badago alternatiba. Berdinen arteko Euskal Errepublikaren alde borrokatzen gara. G7ak sustatzen dituen politika injustuen aurkako borroka ez da Gailurraren egunetan hasten eta amaitzen. Egutero ari gara mundu justu eta parekidearen alde borrokan.

Izan ere, Euskal Herriaren eraikuntza mundu justua eraikitzeke aukera da guretik, lokaletik. Euskal Errepublikaren aldeko borroka, mundu justu eta parekidearen alde egiten dugun ekarpen praktikoa da, mundu berri baterako eredu izango dena. Zergatik? Aurreko orrialdeetan ikusi dugun legez, hamarkadako borrokaren esperientzia positiboa dugulako. Argalak esan zuen legez, aldaketa politikoak horretarako baldintzak dauden tokietan egin behar direlako. Hemen, izan, baditugu eta ari gara. Egin ezazu behar duzuna.

Gora Euskal Herria askatuta!

Gora herria!



G7 ez plataformaren Kontragailurreko deialdiak

H E N D A I A - I R U N

ABUZTUAREN 21ETIK 23ERA
JARDUNALDIAK

ABUZTUAREN 24AN
MANIFESTAZIO NAZIONALA

**TAKE
THE
POWER
BACK!**

Gora herria!